

IRAGARKIA

SUHILTZAILE-GIDARIAK KONTRATATZEKO ZERRENDA ALDI BATERAKOA SALBUESPENEZ ERATZEKO DEIALDIA.

Tokiko Gobernu Batzarrean onarpen data:

2025/08/5

Oinarriak eta eskabide-eredua:

GAO 157. zenbakia, 2025/08/20koa.

Eskabideak aurkezteko epea: 2025eko abuztuaren 21etik irailaren 3ra arte, biak barne.

Deialdiaren oinarriak arretaz irakurtzea gomendatzen da, **batez ere hirugarren eta laugarren oinarriak eta eranskina (baztertze medikoen taula).**

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidearen aurkezpenak bi fase izango ditu (1: Parte hartzeko eskaera eta erantzukizunpeko adierazpena eta 2: Merezimenduak alegatu eta egiaztatu).

Eskaera Udalaren www.donostia.eus webgunearen bidez aurkeztu behar da **nahitaez**, "Lan-eskaintza" atalaren barruan, dagokion deialdiaren aipamenean (identifikazioa eta sinadura elektronikoa behar dira).

Deialdian parte hartzeko bi faseak bete behar dira. Bigarren fasea amaitu ondoren, izangai bakoitzak mezu elektroniko bat jasoko du, autobaremazioaren arabera lortu duen puntuazioaren berri izateko.

2025ko abuztuaren 20ra arte sortutako merezimenduak besterik ez dira baloratuko.

Bi faseak betetzen diren bitartean, Donostiako Udalak bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango dituen alderdiei buruzko informazioa jasoko du izangaiak. Kasu horietan, ez da beharrezkoa izango izangaiak egiaztagiria aurkeztea (hala ere, nahi izanez gero aurkeztu ahal izango ditu).

ANUNCIO

CONVOCATORIA PARA LA CONSTITUCIÓN EXCEPCIONAL DE LA RELACIÓN TEMPORAL DE CONTRATACIÓN DE BOMBERO/A- CONDUCTOR/A.

Fecha aprobación Junta de Gobierno Local:

5/08/2025

Bases y modelo de instancia:

BOG nº 157, de fecha 20/08/2025.

Plazo de presentación de instancias: Del 21 de agosto al 3 de septiembre de 2025, ambos inclusive.

Se recomienda la lectura atenta de las bases de la convocatoria; **especialmente las bases tercera y cuarta y el anexo (cuadro de exclusiones médicas).**

La presentación de la solicitud de participación en el proceso selectivo constará de dos fases (1ª: Solicitud de participación y declaración responsable. 2ª: Alegación y acreditación de méritos).

La solicitud se debe presentar **obligatoriamente** mediante la página web del Ayuntamiento www.donostia.eus dentro del apartado "Oferta de Empleo" en la reseña de la correspondiente convocatoria (requiere identificación y firma electrónica).

Para participar en la convocatoria **es necesario cumplimentar ambas fases.** Tras finalizar la segunda fase la persona aspirante recibirá un correo electrónico con sus respectivas puntuaciones según su propia autobaremación.

Únicamente se valorarán los **méritos** generados **hasta el 20 de agosto de 2025.**

Durante la cumplimentación de ambas fases la persona aspirante recibirá información sobre aquellos aspectos que el Ayuntamiento de San Sebastián podrá comprobar por medios electrónicos, no siendo necesario que la persona aspirante aporte la documentación acreditativa (aunque podrá hacerlo si lo desea).



Edozein kasutan, ezinbestekoa izango da merezimenduak alegatzea.

Bigarren fasea betetzeak (merezimenduak alegatzea eta egiaztatzea) denbora luzea eska dezake, eta, beraz, "Zirriborroa Gorde" aukera erabiliz egitea gomendatzen da. Zirriborroak Udalaren web orriko "Nire karpeta" atalaren bidez berreskuratu ahal izango dira.

Lanbide-esperientzia alegatzerakoan alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Lanaldi osotzat hartuko da hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia egoeran egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzea xede duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora; eta enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere. **Denbora-tarte horiek alegatzean, lanaldiaren %100ean egin direla adierazi behar da.** Egoera horiek behar bezala egiaztatu behar dira.

En cualquier caso, lo que sí será imprescindible es la alegación de los méritos.

La cumplimentación de la segunda fase (alegación y acreditación de méritos) puede exigir un tiempo prolongado, por lo que se recomienda hacerlo utilizando la opción "Guardar Borrador". Los borradores podrán ser recuperados a través del apartado "Mi carpeta" de la página web del Ayuntamiento.

Para la alegación de la experiencia profesional se deben tener en cuenta estos aspectos:

- Se computará como jornada completa el tiempo en el que las personas candidatas hayan permanecido en la situación de excedencia por cuidado de familiares o por violencia de género, el tiempo atribuible a reducciones de jornada o permisos que tengan por finalidad prevista proteger la maternidad y paternidad, o facilitar la conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y laboral, así como el tiempo en el que las empleadas públicas hayan hecho uso de permisos por razón de violencia de género. **Al alegar esos períodos de tiempo debe señalarse que se han realizado al 100% de jornada.** Dichas circunstancias deben quedar suficientemente acreditadas.

Donostian, sinaduraren egunean

PERTSONEN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA

B.O. HAUTAKETA ZERBITZUKO BURUA